

## HAUSTE EGUNA

Lehen  
irakurgaia

( Penitentziarako deia )

### Joel profetaren liburutik

2, 12-18

- 12 Huna zer dion Jaunak:  
Zuen bihotz guziaz itzul enegangat, barur, nigar eta auhenetan.
- 13 Urria zuen bihotzak, eta ez soinekoak,  
itzul zuen Jaunarenganat, zuen Jainkoarenganat,  
bihozbera eta urrikaltsua baita,  
nekez hasarretzen eta maitasun handikoa,  
bere mehatxuek damutzen dena.
- 14 Nork daki, ez ote den itzuliko, gaztiguari uko eginik,  
bere benedizioez zuen betetzeko,  
oparia eskain diezozuen Jaunari, zuen Jainkoari.
- 15 Jo zazue dei-adarra Zionen!  
Mana barur saildua, dei egin batzarrerat!
- 16 Bil populua, mana biltzar saildua!  
Bil zaharrak, bil haurrak eta bularrean direnak!  
Atera bedi senar gaztea bere etxetik, emaztea bere gelatik!
- 17 Atari eta aldare artean, apezek eta Jaunaren zerbitzariak  
auhen egin bezate, erranez:  
“ Barka, Jauna, barka zure populuari!  
Ez utz zure ondarea ahalgearri, jendaldeen aitzinean trufagarri!  
Zertako erran lezakete jendaldeen artean:  
“ Non dute beren Jainkoa?”
- 18 Bainan Jauna amodioz sutan jarri da bere lurrarentzat,  
eta bere populuz urrikaldu.

Salmoa

50

Leloa: **Bihotz berri bat eman guri**  
**Pitz gutan, Jauna, gogo berri!**

Urrikal zaite nitaz, Jauna,  
Hoin duzu eta neurri gabeko bihotz ona.  
Nere hobena ken errotik,  
Garbi nezazu, garbi osoki bekatutik.

Nere gaizkien berri dakit,  
Hobenak oro beti begitan badagozkit.  
Zuri dut, zuri egin kalte,  
Gaizki zaizuna zure begitan dut nik bete.

Bihotz berria ezar nitan,  
Eta funtsezko xede azkarrak har ditzadan.  
Zure begitik ez ni haiza,  
Ez, Izpiritu Saindua kenduz, huts bihotza.

Pitz berriz nitan zure boza;  
Zerurateko gogo zabalak bete neza.  
Jauna, ezpainak zabal neri,  
Nere ahoak goraipa zaitzan herriz herri.

Bigarren  
irakurgaia

( *Bakea egizue Jainkoarekin* )

**Jondoni Paulok Korintiarrekin**

2a: 5,20-6,2

20 Haurrideak,  
Kristoren mandatari gira,  
Jainkoa gure bidez ari balitz bezala.  
Kristoren izenean eskatzen dautzuegu:  
bakea egizue Jainkoarekin.

21 Bekatua ezagutu ez zuena,  
Jainkoak guregatik bekatuarekin bat egin zuen,  
haren baitan gu bilaka gaiten Jainkoaren zuzentasun.

6,1 Eta haren lankide baigira, otoizten zaituztegu  
ez dezazuen alferrik har Jainkoaren grazia.

2 Berak baitio Liburu sainduan:  
Ordu onean entzun zaitut,  
salbamenduko egunean lagundu.  
Huna orai egiazko ordu ona,  
huna orai salbamenduko eguna.

Ebanjelioa

**Jesu Kristo, guri mintza**  
**Argi gure bihotza!**  
Bihotz-berritu zaitezte ba,  
Hurbildua da zeruetako Erreinua!

**Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Matiuren liburutik** 6,1-6. 16-18

- 1 Egun hartan, Jesusek erran zioten dizipulueri:  
 “Behantzue zuen zuzentasuna ager jendeen bixtan,  
 jendeek ikusteagatik.  
 Bertzela, saririk ez dukezue zuen Aita zerukoaren aitzinean.
- 2 Amoina egiten duzunean beraz,  
 dei-adarrak ez jo zuen aitzinean,  
 faltsuek zinagoga eta karraketan egiten duten bezala,  
 gizonek gorets ditzaten.  
 Egiaz diozuet, beren saria ukana dute.
- 3 Zuk, beraz, amoina egitean,  
 ez beza jakin zure esku ezkerak zer ari zaitzun eskuina,  
 4 gordean egon dadin zure amoina.  
 Eta gordean ikusten duen zure Aitak emanen dautzu ordaina.
- 5 Otoitzean ari zireztelarik,  
 ez izan gizon faltsuak bezala,  
 laket baitzaiote zinagoga eta karrika buruetan xutik otoitz egitea,  
 gizonek ikusteagatik.  
 Egiaz diozuet, beren saria ukana dute.
- 6 Bainan zu, otoitz egiten duzunean,  
 sar zaite zure gelan, eta atea hetsirik,  
 egiozu otoitz gordean zure Aitari,  
 eta gordean ikusten duen zure Aitak emanen dautzu ordaina.
- 16 Barur egiten duzunean,  
 ez jar faltsuak bezala begitartea ilun:  
 desegiten dute beren aurpegia,  
 jendeari erakusteko barur egiten dutela.  
 Egiaz diozuet, beren saria ukana dute.
- 17 Zuk aldiz, barur egitean,  
 usain gozoz gantzu zazu burua, eta garbi begitartea;
- 18 horrela jendeak ez du jakinen barur zirela  
 bainan bai gordean den zure Aitak.  
 Eta zure Aitak, gordean ikusten duenak,  
 emanen dautzu ordaina.